


Araugintza

I. ikastaroa



4. saioa

Izen Sintagma

Erantzun orriak



EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO
BALIABIDE ZENTROA

Mokarte parkea z.g.
31620 Uharte. Nafarroa
948 361093 Fax: 948 361092

Aurkibidea

Ariketa orokorra	3
ARAUAK	4
Data eta ordua	4
-(e)ko, -(e)tako	9
Iraupena eta maiztasuna	10
OHIKO AKATSAK.....	11
Aste egunen eta hilabeteen deklinabidea.....	11
Zenbait kalko, denbora esapideetan	11
Hiruan etorriko naiz / Hiruretan etorriko naiz.....	11



Ariketa orokorra

1. *Zein da zuzena?*
 - a) Etxe atzeko zelaiean txanpiñoi ugari atera da.
 - b) Etxe atzeko zelaian txanpiñoi ugari atera da.
 - c) Edozein gaiz mintza daiteke lagun hori.

2. *Hemendik aitzinera, izanen da aldaketarik gure lantokian. Zer erran nahi ote du?*
 - a) Hemendik aitzinera, aldaketatxoren bat edo bertze izanen dela gure lantokian.
 - b) Hemendik aitzinera, aldaketa handiak izanen direla gure lantokian.
 - c) Hemendik aitzinera, ez dela aldaketa handirik izanen gure lantokian.

3. *Hauen artean, zein hobesten du Euskaltzaindiak?*
 - a) Bortz urteko haurrak gela honetara etortzen dira.
 - b) Bortz urtetako haurrak gela honetara etortzen dira.
 - c) Bortz urteetako haurrak gela honetara etortzen dira.

4. *Zein da zuzena?*
 - a) Hiru eta erdietan hasiko dira arratsaldeetako eskolak.
 - b) Hiru t'erdietan hasiko dira arratsaldeetako eskolak.
 - c) Hiru ta erditan hasiko dira arratsaldeetako eskolak.
 - d) Hiru t'ereditan hasiko dira arratsaldeetako eskolak.

5. *Zein da zuzena?*
 - a) Leitza, 2003ko abenduaren 14
 - b) Leitza, 2003ko abenduaren 14an
 - c) Leitza, 2.003ko abenduaren 14a
 - d) Leitza, 2003ko abenduak 14a (“a” sobera dago; bestela, ongi legoke).

6. *Zein ez da zuzena?*
 - a) Hiru astetik behin paratzen dut azterketa batxilergoko taldeetan.
 - b) Hiru astean behin paratzen dut azterketa batxilergoko taldeetan.
 - c) Hiru astez behin paratzen dut azterketa batxilergoko taldeetan.
 - d) Hiru astero paratzen dut azterketa batxilergoko taldeetan.

7. *Zazpi urtez bizi izan naiz Txinan. Bestela esanda:*
 - a) Zazpi urtetan bizi izan naiz Txinan.
 - b) Zazpi urteetan bizi izan naiz Txinan.
 - c) Zazpi urtean bizi izan naiz Txinan.

ARAUAK

Data eta ordua

A.

1. a) Lauaxeta 1.905ean jaio zen.
b) Lauaxeta 1905ean jaio zen.

2. a) Mila bederatzehun eta bosgarren urtean jaio zen Lauaxeta.
b) 1.905garren urtean jaio zen Lauaxeta.
c) 1905garren urtean jaio zen Lauaxeta.
d) 1905. urtean jaio zen Lauaxeta.

3. a) Bilera astelehen batean egin genuen, uztailaren 10ean.
b) Bilera Astelehen batean egin genuen, Uztailaren 10ean.

4. a) Maiatzan deialdia eginen dugu. Ekainan, berriz, azterketa.
b) Maiatzean deialdia eginen dugu. Ekainean, berriz, azterketa.

5. a) Iruñea, 2001eko urriaren 28
b) Iruñea, 2001eko urriaren 28a
c) Iruñean, 2001eko urriaren 28an
d) Iruñean, 2001eko urriak 28
e) Iruñean, 2001eko urriak 28an

6. a) Izena emateko epea ekainak 28tik uztailak 8ra dago zabalik.
b) Izena emateko epea ekainaren 28tik uztailaren 8ra dago zabalik.

7. a) Ordubiak dira.
b) Ordu biak dira.



8. a) Hiruretan sartu nintzen ohera eta seiretan esnatu.
b) Hiruetan sartu nintzen ohera eta seiretan esnatu.
c) Hiruretan sartu nintzen ohera eta seietan esnatu.
d) Hiruetan sartu nintzen ohera eta seietan esnatu.
9. a) Autobusa ez da zazpiak arte irtengo.
b) Autobusa ez da zazpirak arte irtengo.
10. a) Sei eta erdietan heltzen naiz etxera egunero.
b) Sei t'erdietan heltzen naiz etxera egunero.
11. a) Zortziak hogeit gutxitan sartzen naiz lanera.
b) Zortziak hogeit gutxiagotan sartzen naiz lanera.
12. a) Idazkaritza bulegoa 09:00tik 14:00ra egon ohi da zabalik.
b) Idazkaritza bulegoa 09:00etatik 14:00etara egon ohi da zabalik.
13. a) 08:40etan heltzen naiz lantokira eta 17:30etan irteten.
b) 08:40an heltzen naiz lantokira eta 17:30etan irteten.
c) 08:40an heltzen naiz lantokira eta 17:30ean irteten.
14. a) Hala ere, gehienak 17:15ean irteten dira.
b) Hala ere, gehienak 17:15etan irteten dira.
15. a) Bostak eta hamabostetan irteten dira gehienak.
b) Bostak eta laurdenetan irteten dira gehienak.
c) Bostak eta hamabostean irteten dira gehienak.
d) Bostak eta laurdenean irteten dira gehienak.



B.

ETXEPARE BHI
Irailako egutegia: 2001-2002 ikasturtea

✓ <u>Astelehena, irailak 3:</u>	-12:00etan	<i>Irakasgai gaitugabeen ebaluazioa</i>
	-14:00etan	<i>Irakasgai gaitugabeen notak iragarki oholean agertuko dira.</i>

Ebaluazio saioak:

✓ <u>Asteazkena, irailak 5:</u>	- 09:00etan	<i>Batxilergoko 2.B</i>
	- 09:30ean	<i>Batxilergoko 2.A</i>
	-10:00etan	<i>Batxilergoko 1.A</i>
	-10:30ean	<i>Batxilergoko 1.B</i>
	-11:10ean	<i>Batxilergoko 2. mailako noten banaketa</i>
	-12:15ean	<i>Batxilergoko 1. mailako noten banaketa</i>
	- 12:15etik 14:30era	<i>Erreklamazioak eta Selektibitaterako matrikula</i>

✓ <u>Ortzeguna, irailak 6:</u>	- 09:00etatik 12:00etara	<i>Erreklamazioak eta Selektibitaterako matrikula</i>
--------------------------------	--------------------------	---

Obaban, 2002ko ekainaren 30ean

Zuzendaritza



C.

<p>Gaur Getxoren aurkako adiskidantza partida</p> <p>Athleticek eta Getxok lagunartekoa jokatuko dute gaur 17:30ean San Mamesen.</p>	<p>Eibar-Osasuna eta Real Union-Athletic partidak, iluntzeko 20:00etan</p> <p>Azaroaren 6an jokatuko diren Espainiako Kopako kanporaketak ari dira zehazten eta bi partida hauek 20:00etan jokatuko direla jakinarazi zuten klubek atzo.</p>
<p>ENTRENAMENDUAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Athletic. 10:30ean entrenatuko da Lezaman. • Real. Goizean gimnasioan ariko dira eta arratsaldean Zubietako zelaian 16:15ean • Osasuna. Taxoaren ariko dira 10:45ean 	<p>Alaves-Besiktas</p> <p>Joaneko partida urriaren 31n jokatuko dute 20:45ean. ETB1ek osorik eskainiko du.</p>

IPUIN KONTAKETA

- **IRUN.** Gaur, azaroak 15^o, udal liburutegian 17:30ean. Datorren asteartean, azaroak 22^o, kultur etxean.
- **HERNANI.** Bihar Pello Añorga 18:30ean eskolan.

D.

Orduak	Zer ordu da?	Zer ordutan?
13:00	Ordu bata da	Ordu batean
05:05	Bostak eta bost dira	Bostak eta bostean
16:15	Laurak eta laurden dira	Laurak eta laurdenetan
18:40	Zazpiak hogeit gutxi(ago) dira	Zazpiak hogeit gutxi(ago)tan
03:30	Hiru eta erdiak dira	Hiru eta erdietan
07:45	Zortziak laurden gutxi(ago) dira	Zortziak laurden gutxi(ago)tan
12:25	Hamabiak eta hogeita bost dira	Hamabiak eta hogeita bostean



E.

A	B	C
1996ko irailak 5ean	<u>1996ko irailaren 5ean</u>	1996ko iraileko 5ean
Uztailetik Irailera	uztailatik irailara	<u>uztailetik irailera</u>
1931an	<u>1931n</u>	1931ean
1225-ean	<u>1225ean</u>	1225an
31-VI-1999	1999-31-VI	<u>1999-VI-31</u>
maiatzaren 4-an	maiatzaren 4ean	<u>maiatzaren 4an</u>
<u>2003ko irailaren 5a</u>	2003ko Irailak 5ean	2003-ko irailaren 5-a
1.527tik aitzina	<u>1527tik aitzina</u>	1527etik aitzina
2.000. urtean	<u>2000. urtean (1)</u>	2.000 urtean
XVII mendean	<u>XVII. mendean</u>	XVIIgarren mendean
<u>2006tik 2010era</u>	2006etik 2010era	2.006tik 2.010era
1964ko urtarrilatik	1964eko urtarrilatik	<u>1964ko urtarriletik</u>
otsailaren 1-an	<u>otsailaren 1ean</u>	otsailaren 1an
martxoaren 1lean	martxoaren 1lan	<u>martxoaren 1ln</u>

- 1) Kontuan izan “2000. urtean” zein “2000 urtean”, biak, izan daitezkeela zuzenak testuinguruaren arabera:

2000. urtean (urte zehatza da) \neq 2000 urtean (bi mila urtean zehar)



-(e)ko, -(e)tako

A.

Bost orriKOO gutuna idatzi diot nire lagunari.

Hiru hankaKOO mahaia erosi dugu.

Neurri txikiKOO soinekoak gustatzen zaizkio amari.

Hiru asteKOO egonaldia egiteko asmoa du.

Hiru etxe dira auzoan eta hiru etxeETAKOO haurrak etorri zaizkio.

Hirurehun kiloKOO harria aspaldi jaso zuen Perurenak.

Zazpi egunEKOO epea duzu eskabidea egiteko.

Zer egiten ahal du urte gutxiKOO haurrak gurasorik gabe?

Patxik hamar mila euroKOO autoa erosi berri du.

Ez dakigu zein hamar herriTAKOO alkateak etorriko diren Batzar Nagusira.

Hamar metroKOO garaiera du Juantxoren etxeak.

Errioxako bi upeltegiTAKOO ardoa erosi dut etxerako.

Bi urteKOO ardoa erosi dut. (bi urte dituena)

Azken bi urteETAKOO ardoa erosi dut.

Urte askotako ardoa jarri ziguten aukeran, baina niri bi urteTAKOO/KOO gustatu zitzaidan batez ere.



Iraupena eta maiztasuna

1. Ha trabajado durante cinco años en África: de 1998 a 2002.
Bost urtean (bost urtez) lan egin du Afrikan: 1998tik 2002ra.
2. Han organizado esta fiesta cinco años (ez jarraian).
Bost urtetan antolatu dute festa hau.
3. Tenemos vino de (hace) cuatro años.
Lau urteko ardoa daukagu.
4. En esta bodega puedes encontrar vino de cuatro años (cosechado en cuatro años).
Upeltegi honetan lau urtetako ardoa daukazu.
5. Hacen una comida cada dos meses.
Bi hilabetean behin (bi hilabetetik behin, bi hilabetetik bi hilabetera, bi hilabetez behin, bi hilabetetarik behin, bi hilabetetarik bi hilabetetara, bi hilabeterik behin) bazkaria egiten dute.
6. Le llaman por teléfono cada cuarto de hora.
Ordulaurdenero deitzen diote telefonoz.
7. Viene a nuestra casa cada quince días.
Hamabostero (hamabostean behin, hamabost egunean behin, hamabost egunetik behin, bi astetik behin, bi astean behin...) etortzen da gure etxera.
8. Ha ganado esta competición tres años (ez jarraian).
Hiru urtetan irabazi du lehiaketa hau.
9. Nos vemos cada tres semanas.
Hiru astean behin (hiru astetik behin, hiru astetik hiru astera, hiru astez behin, hiru astetarik behin, hiru astetarik hiru astetara, hiru asterik behin) ikusten dugu elkar.



OHIKO AKATSAK

Aste egunen eta hilabeteen deklinabidea

Zenbait kalko, denbora esapideetan

Hiruan etorriko naiz / Hiruretan etorriko naiz

1. De mayo a septiembre me levanto a las seis y media; en cambio, de octubre a abril, a las ocho menos cuarto.
Maiatzetik irailera sei eta erdietan jaikitzen naiz: urritik apirilera, berriz, zortziak laurden gutxitan.
2. ¿De cuándo son estas revistas? Esta es de enero y esta otra de julio.
Noizkoak dira aldizkari hauek? Hau urtarrilekoa da eta beste hau uztailekoa.
3. Iré el lunes y no el miércoles.
Astelehenean joango naiz eta ez asteazkenean.
4. Esta tienda permanecerá cerrada de jueves a sábado.
Denda hau ostegunetik larunbatera itxita egongo da.
5. Las próximas elecciones municipales se celebrarán en junio de 2008.
Hurrengo udal hauteskundeak 2008ko ekainean izango dira.
6. Esta mañana hemos andado por el monte y esta tarde descansaremos.
Gaur goizean mendian ibili gara eta gaur arratsaldean atsedean hartuko dugu.
7. El otro día estaba enfadado.
Aurreko egunean / joan den egunean / lehengo egunean / lehengoan haserre zegoen.
8. ¿Cuándo vendréis? Esta semana no, la otra.
Noiz etorriko zarete? Aste honetan ez, hurrengoan / datorrenean.
9. Este año ha llovido mucho.
Aurten euri asko egin du.
10. Mi hijo nació el 20 de enero de 1995 y no el 2 de febrero de 1996.
Gure semea 1995eko urtarrilaren 20an jaio zen eta ez 1996ko otsailaren 2an.
11. Nos veremos el diez, porque el once me marcharé de vacaciones.
Hamarrean ikusiko dugu elkar, hamaikan oportetara joan behar baitut.
12. El (día) tres yo no voy a poder.
Hiruan ezin izango dut.
13. Nos veremos a las diez porque a las once tendré una reunión.
Hamarretan ikusiko dugu elkar, hamaiketan bilera izango baitut.
14. No voy a poder a las tres, pero sí a las seis.
Hiruretan ezingo dut, baina seietan bai.